



ZUZENDARITZA BATZORDEKO AKORDIOA, HAURRESKOLAK PARTZUERGO PUBLIKOAN HEZITZAILE-PLAZAK BEHIN-BEHINEAN BETETZEKO ETA ORDEZKAPENAK EGITEKO ZERRENDA BERRI BAT EGITERA DEITZEN DUENA, ETA MERITUEN BAREMO BERRIA FINKATZEN DUENA

SARRERA

2003ko abendutik, urtero egin dira hainbat baremazio, eta, haietako bakoitzean, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako araudia aplikatu da, eta, beraz, kasu bakoitzean barematzeko irizpide desberdinak kontuan hartu dira. Horren ondorioa izan da zerrenda berean dauden hautagaien merituak barematzeko irizpide desberdinak erabili izan direla baremazioaren deialdiaren arabera.

Haurreskolak Partzuergoak, barematze honen bidez, baremazio guztietan erabilitako irizpideak bateratu nahi ditu.

LEHENA: XEDEA

- 1.1. Deialdi honen barruan hautagai hauek guztiak sartzen dira: gaur egun, 2008ko apirilaren 7ko zerrenda integratuan daudenak; 2008ko apirilaren 18ko barematu gabeko zerrendakoak; eta Haurreskolak Partzuergoaren zerrendetan sartu nahi duten guztiak.
- 1.2. Deialdi honen xedea da hautagaien zerrenda bakarra sortzea, HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoko hezitzaileen plazak aldi baterako betetzeko eta ordezkapenak egiteko, bai eta zerbitzuak barematzeko ere, zerrenda hori osatuko duten pertsona guztiei barematzeko irizpide berdina aplikatuz.

BIGARRENA: HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

- 2.1. Hautagaiak 2.2. puntuari jasotako baldintzak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen.
- 2.2. Deialdi honetan onartua izateko baldintza orokorrak hauek dira:

- a) Espainiar Estatuaren herritartasuna izatea, edo Europar Batasuneko nahiz Europako Ekonomia Esparruko beste edozein estatu kideri dagokiona, edo aske zirkulatzeko langileen eskubidea edukitzea, Europar Batasuneko Tratatuaren arabera, edo Espainiako Estatuak berretsitako beste tratatu batzuen arabera, edo eskubide hori lege-arau bidez onartua izatea.

Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute: espainiarren ezkontideak, Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak, eta, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen bidez, aske zirkulatzeko langileen eskubidea aplikagarria den estaturen bateko nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, hala nola haien eta ezkontidearen ondorengoek, 21 urtetik beharagoak badira, edo adin horretatik gorakoak izan eta haien kontura bizi badira.

Era berean, Espainiako Estatuari bizi diren eta aurreko paragrafoetan aipatu ez diren atzerriarrek ere parte hartu ahal izango dute. Horretarako, egiaztatu beharko dute kontratuaren xede den jardueraren egiteko administrazio-baimenaren jabe direla.

- b) Hamasei (16) urteak beteak izatea, eta derrigorrezko erretiroa hartzeko, oro har, erabakitako adina oraindik ez izatea.
- c) Hezitzaileen berezko zereginak normaltasunez betetzeko beharrezko gaitasun psikofisikoa izatea. Partzuergoak kontratatu beharreko langileei Mutualitateak alde aurretik azter ditzala eskatu ahal izango die, aurretik lantokien arteko Lan eta Osasun Batzordea entzun beharko duelarik.

- d) Zerbitzutik bereizi ez izana, diziplina-espedita bidez, edozein hezkuntza-zerbitzutik edo herri-administrazioetik, ez eta irmoki ezgaituta egotea ere. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta edo balio bereko egoera batean ez egotea, ez eta bere estatuan Funtzio Publikoan sartzea eragozten dion diziplina-zigorpean edo zigor-kondenapean egotea ere.
- e) Indarreko araudiaren arabera, legezko ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren arrazoirik ez egotea, betiere araudiak aukera egiteko ematen duen eskubidea izanik.

HIRUGARRENA: PROZESUAN SARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

3.1. Ikasketa-titulua:

HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoan plaza hutsak betetzeko zerrendetan sartzeko, nahitaezkoa izango da honako titulu hauetakoren bat izatea, horiek emateko eskubideak ordainduta izatea edo horiei dagozkien gaitasun-agiriak izatea: haur-hezkuntzako irakasle-titulua; haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria; haur-hezkuntzako teknikari espezialista.

Baldintza gisa, ez du baliorik izango EAEn, landa-inguruetan –Europako Batzordeak 2001eko martxoaren 14an hartutako erabakian zehaztuta–, 0-3 urteko adin txikikoak zaintzen dituzten haur-eskoletan eta/edo landa-inguruetako hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuetan hezitzaile aritzeko egiten den homologazio-ikastaroak.

Ez dira kontuan hartuko eskatutako tituluen edo eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiriarekin batera bidaltzen ez diren eskabideak.

Ikasketa-titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztuz.

3.1. Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus otsailaren 24ko 48/2009 Dekretua, 51 zenbakiko EHAA, 2009ko martxoaren 13koa).

Euskara-titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztuz.

Zerrendak zabaltzen direnean, haietan sartzeko, hautagaiek derrigorrez bete beharko dituzte aurrez adierazitako bi baldintzak (ikasketa-titulazioa eta euskara-agiria izatea), eta haien jabe izan beharko dute eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

LAUGARRENA: BAREMATZEKO IRIZPIDEAK ETA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.

Xedapen honetan ezarritako baremazio-irizpideak deialdi honetan bakarrik aplikatuko dira, eta ez dute atzeraeraginezko ondorioz izango.

4.1.- Esperientzia.

- a) Haurreskolak Partzuergoan hezitzaile-lanetan egindako zerbitzuak: 0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko, gehienez ere 27 punturaino.

Lanaldi partzialean egindako lanek, puntuazioari dagokionez, lanaldi osokoen baremazio bera izango dute.

Ordezkoek ikasturte bakoitzean zehar gutxienez 165 lan egunetan aritu diren hautagaiei kurtso bakoitzeko 0,31 puntu lortuko dituzte.

Con formato: Vasco

- b) Baimendutako haur-eskoletan edo haur-hezkuntzako hezitzaile- edo haur-hezkuntzako irakasle-lanetan, edo antzekoetan egindako zerbitzuak: 0,005 puntu lan egindako egun bakoitzeko, gehienez ere 27 punturaino.

Garairen batean leku bat baino gehiagotan egin bada lan, aldekoena soilik hartuko da kontuan.

Barematu beharreko aldiaren Haurreskolak Partzuergoaren zentroetan egindako zerbitzuak ofizioz barematuko dira.

Partzuergoarenak ez diren zentroetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko, hauek aurkeztu beharko dira: **lan-bizitza** eguneratua –zerbitzuak benetan egin direla frogatu beharko du– eta **enpresa kontratatzailearen ziurtagiria –ez da kontraturik onartuko–**; azken agiri horrek kasuan kasuko hezitzailea haur-hezkuntzan hezitzaile aritu dela ziurtatu beharko du.

Partzuergoarenak ez diren zentroetan izandako esperientzia eskatutako bi dokumentu horien (lan-bizitzaren eta enpresaren ziurtagiriaren) bidez ziurtatzen ez dutenei ez zaie baloratuko haietan izandako esperientzia, hurrengoko kasuan izan ezik: egun enpresa edo entitateak itxita badaude jarduera ekonomikorik ez dutela, interesdunek lan kontratua eta lan-bizitza aurkeztuko beharko dute. Lan esperientzia baloratua izango da soilik lan kontratuaren xedapenak argiak, zehatza eta entzubarrekoak badira.

Atal honetan gehienez 27 puntu lortu daitezke.

4.2.- Ikasketa-tituluak.

Hurrengo ikasketa tituluak baloratuko dira, ordezkoen zerrendan sartzeko aurkeztutako titulazioez aparteokoak izan behar delarik, eta hurrengoko baremoarekin:

a)	Haur-hezkuntzan espezializatutako irakaslea	1 puntu
b)	Haur-hezkuntzarako edozein espezialitate duen eta gaituta dagoen irakaslea	1 puntu
c)	Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria	1 puntu
d)	Hautzaindegian espezializatutako teknikaria	1 puntu
e)	Gaikuntza	1 puntu

Gainera, lizentziatura hauetakoren bat dutenek beste **puntu bat** izango dute lizentziatura bakoitzeko: psikologia, pedagogia, psiko-pedagogia. Irakasle-diplomaturetan beste espezialitatearen bat dutenek **0,5 puntu** gehiago izango dituzte diplomatura bakoitzeko.

Ez da puntuagarria EAEn, landa-inguruetan –Europako Batzordeak 2001eko martxoaren 14an hartutako erabakian zehaztuta–, 0-3 urteko adin txikikoak zaintzen dituzten haur-eskoletan eta/edo landa-inguruetatik hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuetan hezitzaile aritzeko egiten den homologazio-ikastaroa.

Atal honetan, gehieneko kopurua 3 puntukoa izango da.

4.2.1.- Eskatutako titulazioaren egiaztatze akademikoa (4.2. puntua)

Hezitzaile berak bi tituluak aurkezten baditu (haur-hezkuntzako irakasle-titulu eta haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria edo hautzaindegiko teknikari espezialista), puntuazio altueneko ziurtagiri akademikoa hartuko da titulazio-baldintzatzat.

Espedientearen batez besteko nota agertzen den ziurtagiri akademikoetan, betiere nota hori hartuko da. Espedientearen batez besteko nota ez bada agertzen, hori lortzeko, hurrengo baliokidetasunak erabiliko dira, ikasgai bakoitzaren kalifikazioak hitzez adierazita badaude:

Ohorezko matrikula – 10, Bikain – 9.5, Oso ongi – 8, Ongi – 6.5, Nahiko, Gaindituta, Baliozkotuta, Gai – 5.5

Batez bestekoaren notaren arabera, eta hurrengo taula honi jarraiki, kasuan kasuko puntuazioa emango da:

9-10.....	1 puntu
7-8.999.....	0.75 puntu
6-6.999.....	0.50 puntu
5-5.999.....	0.25 puntu

Ziurtagiri akademiko pertsonala ez bada bidaltzen eta haren ordez tituluaren fotokopia konpultsatua aurkezten bada, edo tituluaren igortze-eskubideak ordaindu direlako ziurtagiriarena, hautagaiak lortutako batez besteko nota nahiko dela ondorioztatuko da.

4.3.- Lanaldi- eta lurralde-aukeren aldaketa.

Zerrendan egoteko hautagai guztiek, bai aurrez barematutakoek bai barematu gabekoek (izena 2008ko apirilaren 18tik emanda dutenek), Partzuergoan lanaldi- eta lurralde- aukerei dagokienez gaur egun dauden datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskabideak aurkezteko emandako epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, prozesutik ateratzen den barematutako zerrendako kide guztiek (lehenago izendatutakoek eta hautagai berriek) ezingo dituzte berriz aldatu datu horiek, harik eta hurrengo baremazioa egin arte.

BOSGARRENA: ZERRENDAK EGITEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

5.1. Prozedura.

5.1.1. Eskabideak aurkezteko lekua: Haurreskolak Partzuergoaren egoitzan.

5.1.2. Epeak. Eskabideak irailaren 14tik 25ra bitartean aurkeztu beharko dira; bi egunak barne.

5.1.3. Eskabideak aurkezteko modua. Eskabideak erantsitako dokumentuaren arabera aurkeztuko dira, eskabide bakoitzaren **bi ale** aurkeztu ere.

5.2. Baldintza orokorrak. Hautagai-zerrenda bakarra egingo da.

5.3. Puntuazio bakarra eta hautagaien ordena.

Hautagaiak, zerrendan, puntuazio handienetik txikienera ordenatzen dira; puntuazioa argibide hauetan adierazitako baremoa aplikatu ondoren lortutakoa izango da.

5.4. Puntu-berdinketak gertatuz gero, zer egin jakiteko irizpideak.

Puntuazioen guztizkoan berdinketak gertatuz gero, hurrenez hurren, hauek kontuan hartuko dira, haien ordena erabakitzeko:

- Puntuaziorik altuena 4.1. atalean.
- Oraindik ere berdinketa izanez gero, 4.1.a) ataleko puntuaziorik altuena hartuko da kontuan.
- Oraindik ere berdinketa izanez gero, 4.2. atala hartuko da kontuan.
- Eskatutako titulazioaren ikasketa-ziurtagiria, 4.2.1. atalean adierazitako moduan.

Oraindik ere berdinketa badago, eta berdinketa hausteko azken irizpide moduan, abizenen eta izenaren ordena alfabetikoa erabiliko da. Letra bat zozketatuko da, eta letra horretatik hasiko dira alfabetikoki ordenatzen puntuazio bereko hautagaiak.

Berdinketa hausteko irizpide horiek egungo baremazioan gertatutako berdinketak hausteko erabiliko dira.

5.5. Indarraldia.

Deialdi honetatik ateratzen den zerrendak aurreko deialditik ateratakoa ordeztuko du.

2008ko apirilaren 18tik, etengabe irekita dago hautagai berrien zerrenda. Hautagai horiek barematu gabe daude, "zero" puntuazioa dute, eta eskabideak eta dokumentazioa zuzen noiz aurkeztu ziren, horren arabera daude ordenatuta. Hautagai horiek automatikoki sartuko dira zerrenda berrian, eskabideak aurkezteko azken egunaz geroztik, baina espedienteari dagokion "0,25" puntuazioarekin sartuko dira, eta, horregatik, aintzat har diezazkieten nahi duten meritu guztien baremazioa eskatu beharko dute (titulua, ikasketa-ziurtagiria, beste zentroetako esperientzia...), 4.1. atalaren arabera; gainera, berriaz eskatzen zaien dokumentazioa ere aurkeztu beharko dute. Barematu beharreko aldiari Partzuergoan egindako zerbitzuak ofizioz kontuan hartuko zaizkie.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera, berriz ere egongo da etengabe irekita hautagai berrien zerrenda. Zerrenda hori, eskabideak eta dokumentazioa behar bezala noiz aurkeztu, horren arabera ordenatuko da, eta hurrengo txandan barematuko da, gainerako hautagaiekin batera.

Maite Larrañaga Orbea
Partzuergoko idazkaria

Isabel Celaá Diéguez
Partzuergoko lehendakaria



1. ERANSKINA: SARTZEKO ESKABIDEA
HAURRESKOLAK Partzuergo Publikoan lanpostuak aldi batez betetzeko eta ordezkapenak egiteko deialdia

1. **Datu pertsonalak**

ABIZENAK		IZENA	
NA	Fotokopia, bi aldetatik	ZK.	
JAIOTZE-DATA		Tel.	
HELBIDEA		Mugikorra	
HERRIA		LURRALDEA	
P.K.			

2. **Lurraldearen aukeraketa:** aukera bat baino gehiago marka daiteke.
3. **Lanaldia:** bi aukerak markatzen badira, eta denbora partzialeko lanpostu edo ordezkapen bat eskaintzen bada, hura onartu beharra dago.

	OSOA	PARTZIALA
ARABA		
BIZKAIA		
GIPUZKOA		

4. **Baldintzak:** Markatu gurutze batez

Haur-hezkuntzako irakaslea	
Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria	
Hurtzaindegian espezializatutako teknikaria	
Homologazioa/ Gaikuntza	

2. hizkuntza-eskakizuna	Bai	
-------------------------	------------	--

5. **Ikasketa-tituluak:** Markatu gurutze batez. Gehitu kopia konpultsatua. 3 puntu gehienez

Haur-hezkuntzako irakaslea	
Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria	
Hurtzaindegian espezializatutako teknikaria	
Homologazioa/Gaikuntza	
Psikologoa	
Pedagogoa	
Psikopedagogoa	
Beste irakasle-espezialitate bat	

Data eta sinadura



AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Izen-abizenak

- Datu pertsonalak (NAN)
- Titulazio akademikoa
- Hizkuntza-eskakizuna
- Frogatutako lanbide-datuak
Laneko bizi-agiria
- Enpresaren ziurtagiria
- Espediente akademikoa

Erregistro-data



3. ERANSKINA (EZ DA DERRIGORREZKOA) TITULU OSAGARRIAK (EZ DIRA BAREMAGARRIAK)

ABIZENAK		IZENA	
NA			
JAIOTZE- DATA		Tel.	
HELBIDEA		Mugik orra	
HERRIA		LURRALDEA	
P.K.			

- BAREMAGARRI EZ DIREN TITULUAK

- HALA EGOKITUZ GERO, HEZITZAILE BERRIEK ETA LEHENDIK BAREMATUTAKOEK AURKEZTU BEHARREKOA, 1. ETA 2. ERANSKINEKIN BATERA, HURRENEZ HURREN.

- BETE BEHARREKOA, KONTUAN HARTZEKO IKASTETXEETAN IZAN DAITEZKEEN HEZKUNTZA-BEHAR BEREZIAK (ZEINUEN HIZKUNTZA...) DIRELA ETA EGIN DAITEZKEEN DEIALDI ESPEZIFIKOETAN, EDO SOR DAITEZKEEN LAN-POLTSA ESPEZIFIKOETAN
